

ZERAIN

Gazta, sagardoa eta ondarea bat eginik Zerainen

Herriko bi produktu gastronomiko izarrak lotuta eta ondare naturala eta kulturala bat eginda sortu dute produktu turistiko berria 'Gazta eta sagardoaren mendia' proiektua aurkeztu du Zerain Dezagun Fundazioak

18.03.12 - 01:47 - ION MUÑOZA | ZERAIN

Zerainen garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko azken bi hamarkadetan lanean ari den Zerain Dezagun Fundazioak 'Gazta eta sagardoaren mendia' izeneko proiektu berria aurkeztu zuen atzo goizean Zeraingo Herri Museoa herriarren nahiz komunikabideen aurrean. Aurkezpen ekitaldian Zerain Dezagun Fundazioak, Zeraingo Udaleko eta Aldabe Zerbitzu turistikoetako kideez gain, Jon Uriguen, Landa garapen, berrikuntza eta turismoko foru diputatua; Ikerne Badiola, Kultura, dagoeneko egin dira sagardoaren katak nola egin ikasteko ikastaroak Sagardozale elkartearekin elkarlanean, eta aurrera begira ere antzekoak egitea (Gipuzkoako sagardogile Elkarteko teknikaria); Pui Arrieta (Artzain-Gazta elkarteko ordezkaria) Zeraingo gaztagile eta sagardogileak eta Zeraingo herritarrek izan zureb.

Zeraingo lehen sektorean ditugun bi produktu preziatu, gazta eta sagardoa, lotu dira turismoaren arloan gastronomiak duen pisuari erantzun egokia eman nahita. Horrela sortu da atzo aukerztatutako proiektua: 'Gazta eta sagardoaren mendia'. Honen baitan hainbat egitasmo diseinatu dira. Horietako batzuk abian dira dagoeneko; beste batzuk berri, aurki jarriko dira martxan. Martxoaren 1etik hasita, adibidez, ostiral eta larunbat iluntzetan doako autobus zerbitzua jarri dute martxan Ordizia, Lazkao eta Beasaindik nahiz Legazpi, Zumarraga-Urretxu eta Ormaiztegitik Zeraingo Oiharte eta Oatza sagardotegietara joateko. Horrez gain, dagoeneko egin dira sagardoaren katak nola egin ikasteko ikastaroak Sagardozale elkartearekin elkarlanean, eta aurrera begira ere antzekoak egitea aurreikusten da. Horiek azken hilabete honetan abiatu direnak, baina hemendik aurrera, proiektu honen barruan beste hainbat ekimen interesgarri abiatuko dira.

Erakusketa iraunkorra

Herriko museoari lotuta, atzotik aurrera ikusgai dago kultur etxean (museorako sarreran), 'Gazta eta sagardoaren mendia' erakusketa. Zeraingo bi produktu izarrak lotzeaz gain, sagardogintza eta gaztagintzaren inguruko prozesua, historia, gastronomia, kultura, etab. azaltzen ditu atzotik aurrera herritarrentzat nahiz bisitariarentzat irekita dagoen erakusketak: gazta nola egiten den, sagardoa nola egiten den, urtaro bakoitzean artzainek eta sagardozaleak zein lan egin behar izaten dituzten...

Erakusketa bisitatzen datozenez gazta nahiz sagardo katak egiteko aukera ere izango dute. Horretarako gaztaren eta sagardoaren gozagune bat prestatuko da eta kata egitera doazen bisitarietara eskuorri bat banatuko zaie. Era berean, gaztandegietara eta sagardotegietara ere bisita gidatuak antolatuko dira. Honen guztiaren osagarri den sagardogintzaren inguruko ikus-entzunezko bat ere prestatu da eta erakusketa bisitatzen doan edonork ikusi ahalko du. Horiez gain, urte guztian gozatu ahalko da Gazta eta sagardoaren mendia proiektuaren baitako kata, bisita, eta antzeko ekimenez, eta horretarako Zeraingo Turismo bulegoan jaso daiteke informazio gehiago, handik koordinatuko baita guztia.

Gazta eta sagardo berria

Bestalde, ekitaldi jendetsuan, aurtengo gazta eta sagardo berria aurkeztu zituzten Zerainen. Bertako artzain eta sagardogileek gazta eta sagardo berriak jendartera eraman zituzten, eta bertan elkartutako agintari nahiz herritarrek gazta eta sagardo berria dastatzeko aukera eduki zuten. Probatu ostean, ez da harritzekoa bi produktu hauek 'izarrak' direla esatea; bikainak zeuden.

Azkenik, proiektuaren aurkezpen ekitaldia amaitu ostean, Zerain Dezagun Fundazioak antolatuta, bazkaria egin zen Zeraingo Liztormendi elkartearen. Hala, Fundazioak urte hauetan guztietan bazkideek eman duten babesa eta laguntza eskertu nahi izan zuen.

TAGS RELACIONADOS

[gazta, sagardoa, ondarea, eginik, zerainen](#)

ANUNCIOS GOOGLE

Apartamentos Fuenterrabia

Apartamentos Vacaciones & Playa. Ubicación y Diseño.Compruébalo ya!
[www.FeelFreeRentals.com](#)

Mondragon Unibertsitatea

Ate irekien jardunaldiak Etorri MU ezagutzera!
[www.mondragon.edu/prest](#)

Semana Santa en Gorozika

10-14 Abril, barmetegi de Gorozika ¡Entra y apúntate!
[www.bilbozaharra.com](#)

Bikini baten bila?

Halako bikini ederrekin ezinekoa nudismoa egitea
[www.goiuri.com](#)

Para poder comentar debes estar [registrado](#)[Añadir comentario](#)Iniciar sesión con  [Regístrate](#)